

CARROS DE FOC

LLEIDAKO PIRINIOTAKO

MENUA

Ardo dastaketa batean Lleidako upategi bat ezagutu nuenetik, hainbat izan dira probintzia honetara bueltatu naizen aldiak. Lur hauetatik zerbaitek erakarri ninduen, baina ez nago ziur zer izan zen. Uda honetan ere, bertara gerturatu eta neure burua menu interesgarri bat proposatzeko moduan aurkitu dut. Hona hemen emaitza.

TESTU ETA ARGAZKIAK



Ibon Murua Azkuenaga

Alpino-Tabirako kide, egun, mendi taldearen Katazka hiruhilabetekariaren ardura duenetako bat. Bidezidorrak ditu gustoko, natura zeharkatzen edota zeharkatu izan duten bidezidorrak. Orokorrean, gertukoak ditu gustoko, barnean is-toriorren bat dutenak.

Colladeta de Dellui eta lehen Estany-ak





AMANIDA ERROMANIKOA

Sarrera gisa plater hau oso interesgarria iruditu zait, eramangarria eta zentzumen guztiekin gozatzeko modukoa. Osagaiak Alta Ribagorça eskualdetik datoz, zehazki, La Vall de Boí udalerriko lurretatik.

Historia duten osagaiak dira, XI. mendean, Erilleko jaunen garai urrunetan barneratzen gaituztenak. Jauntxo hauek Aragoiko errege zen Alfonso borrokariarentzat hainbat lur konkistatu zituzten berriz, trukean dirutza ederra lortuz. La Vall de Boí udalerrian zehar barreiatutik dauden hainbat eliza erromaniko dira erdietsi zuten boterearen erakusle. Egun, multzo osoa Gizateriaren Ondare izendaturik dago baina, Alfonso Erregearen garaian, jauntxo batzuen gutziak besterik ez ziren. Sorta berezi honetako eraikinen arteak deigarriena, agian, Erill la Vall-ekoa izan dai-

teke (kasualitatea ere horrela deitzea), zeinaren kanpandorreak bisita bat merezi duen.

Entsalada honetan, eraikinen guztion arteko sei elkartu ditut eta ermita bat gehitu, guztira 20 km inguruko txango bat osatuz. Uda sasoiari, gehigarri bezala eta euro eskas batzuen truke, eraikinen kanpandorreetara igotzeko aukera dago, adrenalina apur bat gehituz ibilbide berezi honi. Kontatuko didazue Erill la Valleko Santa Eulaliako kanpandorrera igotzera ausartu bazarete!

Eliza eta eliza artean "Faro" berezi batzuk ere ezagutuko ditugu. Ibar honetako auzune bakoitzak ba omen du, herrigunea bere osotasunean begizatzen den puntu garai batean, horietako bat. Gauzak argitze aldera, "Faroa" inguruko basoetatik ekarritako pinu bat izaten da zeinari, San Pedro egunez, su ematen zaion "Faila" bat sortuz. Afalostean "failariak" beraien zuziak

zuhaitz honen garretatik piztu eta ilaran jaisten dira herrigunera, suaren bueltako ospakizun interesgarri bat eginez.

Ikusten duzuen bezala, inguru hauek eta bertako usadioek kronika oso baterako emango lukete; beraz, gehiegi luzatu gabe, goazen plater nagusira!

Sant Joan de Boí, ibarreko erromanikoaren eredu





Els Encantats Estany de Sant Maurici zainduz

XAI DE FOC

Bitxiki, suarekin lotuta dago menuaren zati hau ere. Arkume errea beti zait gustagarri, eta gaurko errazioak 6 arkume txuleta ditu, dagokion hornigaiarekin.

Lehenak hotz harrapatzen gaitu baina, amaierarako, aho zapore atsegina uzten digu. Boitik goizean goiz taxi batean abiatu eta bagoaz Planell d'Aigüestortesera (1827 m). Hortik, Estany Llong mendi-aterpera (1987 m) non, hasiera ofiziala ematen diogun 6 ekinaldiko dastaketa honi.

Estanyak, hain zuzen ere, oso present izango ditugu zirkuitu osoan zehar eta, nahiz eta ikusten ditugun lehenak txoratzen utzi, bada momentu bat beraiekin elkarbizitzera ohitu eta gure argazkien jomuga izateari utziko diotena, ia oharkabean igaroaz gure begien aurretik. Lehen "hezurrak" ere zurruputzen hasi gara, harkaitz-blokeen kaosean zehar igarotako lehen metroak alegia.

Baina oharkabean igaro ez zaiguna, 2300 metro inguruko garaieran aurkitu dugun trenbidea izan da, trenbide bat zeinak ezin izan dizkigun argitu "nondik nator?" eta "nora noa?" bezalako galdera existentzialak. Zer demontre egiten du honek horrelako

altuera batean eta, are gehiago, nola erai-ki dute horrelako burdintzarrez osatutako egitura paraje honetan? Ziur galdera hauek beste kronika baterako ematen dutela, beraz, goazen bigarren txuleta bilatu!

Txuleta hau txikitxo da, distantzia laburrerako, baina baditu bere sorpresak. Guk, gainera, hornigai eder batekin lagundu dugu: Pic de Saburó (2906 m), eguneko, eta plater osoko, puntu gorena.

Tontor hau, "Subaru" edota "Harri okertuaren tontorra" lez ere bataiatu dugu, izan ere, hori baitu gailurrak ezaugarri nagusi: harritzar laukizuzen bat, beste batzuen gainean erdi etzana grabitate indarrei desafia eginez.

Baina berau ezagutu aurretik, igoera piko bezain estu bat dugu zain, Pas de l'Os (2542 m), eta jarraian txuleta hezurra ere zurrupatu ahal izan dugu: harkaitz-blokeen kaos berri bat, sakonean zelatari dugun Estany de Saburó inguratzen duena izen bereko mendi-lepoa erdietsi aurretik.

Aho zapore atseginarekin bukatu dugu bigarren txuleta hau ere, J. M. Blanch mendi-aterpe "exotikoan" (2318 m). Bertako jagoleek ere bere ukitua eman diote eta, arratsaldeko plan bezala, harrian zizelkatutako tuneletan barrena, uren bideratze zaharretan zehar, bidaia fresko bat proposatu digute.

Arkume errea beti zait gustagarri, eta gaurko errazioak 6 arkume txuleta ditu, dagokion hornigaiarekin

Hirugarren txuleta tamaina ederra du baina, hala ere, ez zaio hornigaia falta izan, Pic de Monestero (2877 m) pixka bat. Batzuei interesgarriagoa zitzaigun aurrez aurre genuen Peguera (2980 m), baina hori, antza, ez zegoen menuaren barruan. Bueltatzeko aitzakia badugu!

Gaurkoan bi mendi-aterpe kateatu ditugu, baita dastatu 6 egunetan izango ditugun euri-zaparrada bakanak ere. Txingor-zaparrada eskas batek agurtu gaitu Coll de Monesteron (2716 m) eta gogorrago erasotu euriak Ernest Mallafré mendi-aterpean (1893 m): tramite hutsak!

Kontuak kontu, gaur bisitatu ditugu jendearentzat aski ezagunak izan daitezkeen Estany de Sant Maurici eta Salt de Ratera.

Guztiok geratu gara "Encantats" hirugarren txuleta honekin. "Encantats" inguratu ditugun Encantat Xic (2734 m) eta Gran (2748 m) tontorrei begira, eta "Encantats" bertan betirako geratu ziren bi ehiztariak bezala, beraien herriko jaietako meza nagusira joan ordez, ehiza hautatu eta ondorioz Gorenaren zigorra jaso zutenak: haitz bihurtu zituen tximistaren inpaktuak. Horrela dio behintzat elezaharrek, beraz, kontuan edukitu!

Zer esan laugarren txuleta buruz: hornigai eder batean Pic de Ratera (2862 m) eta bertatik ikus daitezkeen Colomeraseko zirkua!

Gaur ere bi mendi-aterpe kateatu ditugu, baina aleak izan du hezur gogorren bat, Coth de Sedrosa moduan (2451 m). Agian, azken hau eramangarriago egiten lagunduko zizun bertara igotzen hasi aurretik dagoen Saboredoko mendi-aterpeak (2299 m) eskaintzen zuen kalimotxoak, baina ez genuen probatu! Hurrengorako badakigu.

Sigi-sagan iritsi gara Colomeraseko mendi-aterpeko parajeetara (2153 m) eta hauek goxotu digute aho zaporea.

Bosgarren txuleta izan daiteke, agian, guztietan aldrebesena. Zigilu bilduma bere osotasunean izate aldera, tramite gogorra igaro behar izan dugu gaur. Zuloan sartuta dagoen Restanca mendi-aterpera (2010 m) joan etorri "azkar" bat egin beharrean gara gure dokumentua legalizatua izan dadin. "Behera, behera, behera, behera Res-tan-cal!" (400 metroko desnibela); "Gora, gora, gora, gora Port-de-Rius!" (jaietako 400 metroak berreskuratu, alegia).

Aurretik baina, Port de Caldes (2572 m) erdietsi behar dugu, Tuc deth Pòrt (2783 m) eta Pic dera Lòssa (2558 m) artean kokatutako sakan estuan gora, Piriniotako Bruna arrazako behi sendoen artean, zeinetariko bateren bat pixka bat aztoratuta dabilen...

Caldes, Rius, Restanca eta Riusera buelta. Tramitea bete eta bitan banatu dugu taldea. Batzuk hornigai faltan gara eta bostgarren txuleta Montardo ezaguna (2837 m) gehitu nahi izan diogu. Besteak mendi-aterpera bidean jarri dira.

Ederra iruditu zaigu Montardo arratsaldeko 15:00tan, guretzat bere osotasunean. Bruna arrazako behi gutxi batzuek aparte

ez da arimarik ageri mendi famatu honetan. Hura aldea goizean, Port de Riuseu (2475 m) Restancara joan edo ez erabakitzen ari ginen bitartean, ikusten zen jende andanarekin!

Seigarren eta azken aleak badu gustura zurrupatzen den hezur horietako bat: Collet de Contraix, mendi-leporik garaiena

Seigarren eta azken aleak badu gustura zurrupatzen den hezur horietako bat: Collet de Contraix, plater osoko mendi-leporik garaiena (2749 m). Bertara igotzeko har-kaitz-blokeen kaos eder bat igo behar da eta nik ederto pasatu dut, umeak bezala, saltoka harriz-harri.

Irensteko gogorragoa iruditu zaigu Estany Llong mendi-aterpera bueltan eraman gaituen 800 metroko jaitsiera gogaikarria.

Bueltatu gara Planell d'Aigüestortesera eta, hara! Bertan da orain 6 egun bertara igo gintuen taxi-gidari berbera! Kasualitate, ehunka taxilariren artean berriz ere bera suertatzea!

Beraz, ederto itxi dugu zirkulua, baina bueltatu gara sakoneko udako bero sargorira! *Carros de Foc* egiten egon garen



Blokeen kaosa Collet de Contraix defendatuz

bitartean dastatu dugun freskotasunaren hutsunea sumatzen hasi gara jada. Lastima platera garbitu dugula! Ezin da errepikatu?

AMAITZEKO, MEL I MATÓ

Oraindik arkume txuleturen zaporea gutziz ezin ahaztuta, digestioa egiten lagun-

duko didan zerbait aukeratzen hasi eta Gaztanbera eztiarekin otu zait. Gaztele-raz "Requeson con miel" eta, nire kasuan, piragua ibilbidetxo bat Seu d'Urgelletik ez oso urruti (eztia) eta Pallars Jussáko tontortxo bat (gaztanbera), El Codó edota Sant Roc (1327 m).

Menu oparo bat, errepikatzeko modukoa.

Montardo tontorrak eskeintzen digun ikuspegi paregabea

